

BUENOS AIRES

Kaixo, lagun.

Honek berba honek irakurten bazagoz, kanpora joatea pentsau dozulako da. Bada, pozten naz, aberasgarria izango jatzu eta. Saiatuko naz ahalik eta argien dana azalduten.

Akademia kontuakaz hasiko naz. Gai honen ganean ez deusut nik gauza on askorik esango, ez dot eta suberte handirik izan. Baina, hau arazoa pertsonala izan da; nigaz egon diran beste euskaldunek ez dabe arazorik euki. Honegaz ez dot nahi inork txarto pentsetarik, proiektua egiten bazoaze, Buenos Aires aukeratuta aurretik kontu guztiakaz ondo jabetuteko baino. Lehenengo bertara deitu, eta ia zer dinotsuen; bestela, ni prest nago nire arazoa zein izan zan azalduteko, idazkaritzan eskatu nire barri eta kontauko deusuet dana.

Goazen beste gauza batera orain: Buenos Aires eta bertako jentea. Seguruenik beti entzun izango zenduen Argentinako jentea edegia eta adeitsua dala. Bada, ez deusue inork be guzurrik esan. Leku guztietan lez, hemen be era guztietako jentea topau leiteke, baina orokorrean, dudaren bat badaukazue eta edonori itaundu, danak egongo dira prest erantzunen bat emoteko. Baina argi, horrek ez dau esan gura emongo deusuen erantzun hori beti zuzena izango danik. "Porteñoek" (Buenos Airesko uritarrei holan deituten jake), badaukie holako ohitura txar bat, erantzuna jakin barik be emotekoa. Inori ez daiola arraro egin handik 5 minutura beste bati itaun bardina egin eta kontrakoa erantzuten badeusue. Baita be, 3-4 kuadra esaten badeusue; horrek ez dau esan gura 3-4 diranik, 6-7 eginda be baleiteke zeuok gura dozuen lekura oraindino heldu barik egotea eta. Uriari jagokonez, inor ez joan uri ikusgarri bat ikusteko asmoz. Nire eritxi pertsonala da, Buenos Aires ez dala turismoa egiten joateko uri bat, bertan bizi izateko uri bat baino. Leku politak be badaukaz, eraikuntza edarrak be bai, baina auzo zaharrak eta apurtuta dagozan espaloiak gehiago. Baina, bertan bizitzeak badauka xarma berezi bat; azkenean be joaten bazarie, konturatuko zarie zeuon kabuz.

Seguru nago parrandaren ganean be gurako dozuela zer edo zer jakin. Bada, ahaztu hor egiten dozuezan afaldu aurreko txikiteo, afari eta afalostean datorren guztiagaz. Argentinan, afalostean ezagunen baten etxean geratu (beti be hoba beste baten etxea zikindu), bakotxak nahi dabena edan (eroan egin behar da edatekoa, jakina) eta goizaldeko ordu biak alderako diskotekara ("boliche" deiturikoak) joaten da. Subertea badaukazue, eta terrazaren bat badaukazue etxean edo lagunaren batek badauka,

“asadoren” bat egitea bere eukiko dozue. Lasai egon, okela jateaz aspertuko zarie eta, asko gustetan bajatzue be bai. Ia-ia letxuga erostea baino merkeagoa da.

Ahaztu baino lehen, ekonomiari buruz berba pare bat. Argentinako ekonomia oso une berezian dago, larrian ez esatearren. Diruak ez dauka beti balio bera; dolarraren arabera aldatuten joaten da. Hau idazten nagoen unean, adibidez, euroa 10,5 pesotan dago gitxi gorabehera, eta ni joan nintzanean 7,8an egoan. Baina, hori ez da dana. Gobernuak pesoak ez diran beste dibisak jenteari emoteko muga gogorrek daukatzaz ezarrita, eta horren ondorioz, merkatu paralelo bat dago balio ofiziala baino gehiago ordainduten deitsuen. Florida kalera joan behar dozue horretarako, ez da legala, baina mundu guztiak daki han dagoena, eta kalean sartuaz batera konturatuko zarie bertan zagozela. Dirua aldatuten daben jentea kalean kantetan egoten da dirua aldatzen dabela. Eureka negoziak (inoiz be lehenengo galdetutakoagaz ez geratu, bati baino gehiagori galdetu) eta gero ofizina batera eroaten zaitue; han aldatuten deitsue dirua. Guk ez genduan inoiz arazorik euki, baina ofizina batzuek beste batzuek baino segurtasun handiagoa emoten dabe. Hori esperientziak erakutsiko deitsue.

Buenos Aiestik mogiduteko, “colectivo” deitzen diran autobus urbanoak dagoz, eta “subte” deitzen dan metroa be bai. Garraio publikoa oso ondo dago alde batetik bestera joateko, eta oso merkea da. “Sube” izeneko txartel bategaz ibili behar dozue; heldu eta lehenengo gauza, txartel bat erosi. Badago Interneten “mapa interactivo de Buenos Aires” izeneko web orri bat. Hor nondik nora joan nahi dozuen ipini eta berak esango deitsue non hartu zein “colectivo” edo zein “subte” eta nora eroango zaituen. Benetan, garraio publikoa oso ona da.

Eta amaitzeko, bidaiak. Zer ikusi Argentina aldean. Bada, inori ez daiola bururatu be egin Iguazuko ur jauziak ikusi barik bueltan etortea. Han zagozala daukazuzan sentimenduak bertan zagozala bakarrik bizi leitekez. Handitasun haren aurrean, zure txikitasunetik hori miresteak beste ikuspegi bat emoten dau, nire esperientzia holan izan zan behinik behin. 20 bat ordu dagoz Buenos Aiestik autobusean, baina hegazkinak be aurkituko dozuez beharbada prezio berean, argi ibili. Bariloche eta Mendoza be ikusgarriak ei dira (nik ez dodaz bisitau, dana ezin da eta...) eta zer esango deitsuet Perito Moreno eta inguruei buruz. Calafatera joan, glaziarrek ikusi, Chaltenera hurreratu Fitz Roy ikustera (lainorik ez badago) eta hango gastronomiagaz gozau. Hortik behera jarraitu eta Ushuaia. Zer esan, xarma berezia dauka munduren amaierako urian egoteak. Antartidako aire hotza aurpegian sentidu eta Beagle itsas argia bisitau, “Tierra de Fuego” parkean paseotxo bat emon...

Eta, Iparraldean, Salta eta Jujuy. Hemen ikusiko dozuezan koloreak eta irudiak ez dozuez leku askotan ikusiko.

Eta gero, denporarik eta dirurik geratzen bajatzue, Brasil, Bolivia eta Peru be ikusgarriak dira. Aholkurik behar badozue, eskatu bildurrik barik.

Nahiko denpora kendu deusuet honaino irakurri badozue; beraz, suberte ona euki daizuela eta esperientzia eder bat izan daizuela kanpo aldera joaten bazarie.

Agur bero bat,

Andoni